


Euskal AEko industria-prezioak % 0,7 igo dira 2021eko otsailean aurreko hilaren aldean

2020ko otsailarekin alderatuta, industriako prezioek % 0,3 egin dute gora

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,7 igo dira 2021eko otsailean aurreko hilaren aldean. Otsaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza biltzen duena) % 0,3koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2021eko otsailean, honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Kokeriak eta petrolioaren finantza* (% 5,2 gora), *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 1,7) eta *Ura eta Botikaren fabrikazioa* (% 0,7). Aitzitik, hilabete artean prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 3,4 behera egin duena), *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 1,6 behera) eta *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 0,7ko jaitsierarekin).

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, prezioen aldakuntzak desberdinak izan dira: *Energiarenak* % 3,1 hazi dira, eta *Bitarteko ondasunenak* % 0,8. Aitzitik, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,9 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasunenak*, oro har, % 0,6, aurreko hilaren aldean. Izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* azpisektorea % 0,7 jaitsi da, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorea % 0,1.

Euskal AEko industriako prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2021ko Otsaila

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2021ots / 2021urt	2021ots / 2020ots
INDIZE OROKORRA	103,7	0,7	0,3
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	105,3	-3,4	-4,5
Manufaktura-industria	105,0	0,7	0,7
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	105,6	-0,7	1,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	108,2	-0,1	-4,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	103,7	0,0	-1,1
Kokeak eta petrolioaren fintzen	100,8	5,2	-4,6
Industria kimikoa	110,7	0,6	1,7
Botiken fabrikazioa	113,3	0,7	4,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,1	-0,3	-0,1
Metalurgia eta produktu metalikoak	106,6	1,7	3,6
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	109,3	-0,2	5,7
Material eta ekipoen fabrikazioa	107,3	0,1	2,4
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,3	-0,2	-1,2
Garraiorako materialen fabrikazioa	107,2	-1,6	0,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,5	-0,3	0,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	95,4	0,5	-2,1
Ura	108,3	0,7	-0,6
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	106,6	-0,6	1,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,6	-0,1	0,4
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	106,9	-0,7	1,9
Ekipo-ondasunak	107,7	-0,9	0,2
Bitarteko ondasunak	104,6	0,8	1,8
Energia	98,3	3,1	-3,7

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2021eko otsaila, 2020ko otsailaren aldean), prezio-hazkunderik handienak adar hauetan izan dira: *Produktu informatiko, elektronikoko eta optikoen fabrikazioa* (% 5,7ko igoera), *Botiken fabrikazioa* (% 4,6ko igoera) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 3,6ko igoera). Prezioen jaitsierarik handienak, berriz, honako sektore hauei dagozkie: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 4,6ko jaitsiera), *Erauzketa-industriak* (% 4,5 behera) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,0ko jaitsiera).

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasun-talde handien prezioen aldakuntza, urte arteko aldiaren positiboa izan da *Bitarteko ondasunentzat* (% 1,8ko igoera) eta *Ekipo-ondasunentzat* (% 0,2 gora). *Kontsumo-ondasunen* prezioek ere gora egin dute oro har, % 1,7, ezen *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 1,9 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrenak* % 0,4. Aitzitik, urte arteko terminoetan, *Energiaren* prezioak % 3,7 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62